




Aireko trafikoa laukoiztu zen maiatzean EAEn

Bidaiarien mugimendua aireportuetan
Urte bakoitzeko maiatza. Mila




Iturria: AENA.

Maiatzean, EAEko aireportuetako pertsonen mugimenduak laukoiztu egin zuen aurreko urteko kopurua. Hilabete horretan, guztira, 526.700 pertsonak bidaiatu zuten hegazkinez, eta kopuru hori pandemia iritsi aurretik izandakoetara hurbiltzen ari da pixkanaka.

Etxebizitzaren salmenta %12,8 hazi zen apirila arte

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtariletik apirilera bitartean



Iturria: INE.


2022ko lehen lau hilabeteetan, etxebizitzaren salmentak %12,8 egin zuen gora, aurreko urteko aldi beraren aldean. Metatutako zifra hori bigarren handiena da, 2007an higiezinaren burbuila lehertu aurretik 10.000 etxebizitza baino gehiago saldu baitziren.



EAEko esportazioak %30,8 hazi ziren apirilean

Ondasunen esportazioak atzerrira

Urte bakoitzeko apirila. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Atzerrian saldutako EAEko ondasunen esportazioak %30,8 hazi ziren apirilean, urte arteko tasan. Guztira, esportazio horien balioa 2.661 milioi eurokoa izan zen, hilabete batean inoiz erregistratu den kopururik handiena baita. Produktu energetikoen salmenta %47,6 handitu zen eta gainerakoa, berriz, % 29,8.

Automobilen salmenta EAEn ez da suspertzen

Automobilen matrikulazioa EAEn

Urte bakoitzeko urtariletik maiatzera bitartean



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren informazio estatistikoaren arabera, maiatza arte 10.101 auto saldu ziren Euskadin, aurreko urtean baino %11,1 gutxiago. Alboko irudiak adierazten du azken hiru urteetan salmentak nahiko baxuak izan direla, salmenten serie historikoarekin alderatuta.